

Sarrera:

Euskal Etxeko euskara-irakaskuntzak HABEren curriculumak ezarritako ildoak jarraitzen ditu. Erakunde hori helduen (16 urtetik gorako) euskalduntzeaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Autonomiadun Erakundea da. 2015eko udan, HABEk, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markora hobeto moldatu ahal izateko, aldaketa batzuk egin ditu curriculumean. Aldaketok, batez ere behe mailetan izan dira, eta, ondorioz, euskaltegi eta euskal etxeok curriculum berrira moldatu behar izan dugu.

Curriculum berriak bi berrikuntza nagusi dakar: alde batetik, ikaslearen autonomia eta erabilera-estrategiak sustatu nahi ditu, eta, bestetik, ikasprozesua sei mailatan banatu du. Ebaluazioak berdin jarraituko du: ez da baloratuko ikasleak zenbat gramatika-egitura dakien, ikaslearen gaitasun komunikatiboa zenbatekoa den baizik; hau da, zer eta zenbat ulertzen duen entzutean eta irakurtzean, eta zer egiteko gai den idaztean eta hitz egitean. Esaterako, nahiz eta NOR-NORKaren alegiazko ahalera ez jakin, ikasle batek C1 mailako titulua lor dezake aldizkari baterako iritzi-artikulu bat idazteko gai bada, eta hitzaldi bat zuzen eta egoki egin badezake.

Gure funtzionamendua:

HABE (HEOC 2015)				→	EUSKAL ETXEA			
MAILA	AZPI MAILA	ORDUAK			MAILA	IKAST	ORDUAK	
C1	C1.2	400 ira + 350 ika	750 ordu	C1 zikloa	C	130 ira + 120 ika	750 ordu	
	C1.1				B			130 ira + 120 ika
				A	130 ira + 120 ika			
B2	B2.2	350 ira + 250 ika	600 ordu	B2 zikloa	C	130 ira + 70 ika	600 ordu	
	B2.1				B			130 ira + 70 ika
					A			130 ira + 70 ika
B1	B1.2	250 ira + 150 ika	400 ordu	B1 zikloa	B	130 ira + 70 ika	400 ordu	
	B1.1				A			130 ira + 70 ika
A2	A2.2	200 ira + 100 ika	300 ordu	A2 zikloa	B	130 ira + 20 ika	300 ordu	
	A2.1				A			130 ira + 20 ika
A1		125 ira + 75 ika	200	A1		130 ira + 70 ika	200	

Ikasleak, maila bakoitza egiteko, gutxi gorabehera zenbat ordu beharko dituen kalkulatu du HABEk. Ordu horiek irakastordu eta ikastordutan banatu ditu. *Irakastordu* eskola-orduei deitzen die, eta *ikastordu* bakarlan eta erabilera askeari: etxerako lanak, irratia entzun, telebista ikusi, egunkariak irakurri, lagunekin mintzatu, etab.

Ondoko koadroan ikus dezakezue guk, Euskal Etxean, nola egokitu ditugun gure 130 eskola-orduko ikastaroak ikasprozesura.

Bartzelonan, ikasleek mailetan gora egin ahala, matrikulen kopurua jaitsi egiten da, eta talde homogeenak sortzeko arazoak izaten ditugu. Horregatik, taldea sortu ahal izateko, A2 mailatik gorako taldeak ez dira homogeenak izango; bestela esanda, talde berean azpimaila desberdinetako ikasleak elkartuko ditugu. Curriculumak aukera ematen du horretarako:

ikaslearen gaitasuna baloratzen/ebaluatzen denez, talde berean gramatika-egitura gehiago edota gutxiago ezagutzen dituzten ikasleak elkar daitezke.

Laburbilduz, A1 mailan izan ezik, gainontzeko guztietan zikloka funtzionatuko dugu: maila heterogeneo horretan matrikulatuta dagoen ikasleak maila hori bitan edo hirutan egin beharko du. Hori dela eta, ikasleek materiala errepika ez dezaten, A2 eta B1 mailetan bi urteko zikloak egingo ditugu, eta B2 eta C1 mailetan hiru urtekoak (hiru urteko ziklo baten adibidea: 2016-2017 ikasturtean A materiala, 2017-2018 ikasturtean B materiala, 2018-2019 ikasturtean C materiala, 2019-2020 ikasturtean A materiala berriro...).

Tituluen baliokidetzak:

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa	Eusko Jaurlaritza					Hizkuntza Eskola Ofiziala*
	Hizkuntz Eskakizunak		Hezkuntza	HABE	Boga	
	Arruntak	Hezkuntza Ertzaintza				
C2	4. HE	3. HE		C2		
C1	3. HE	2. HE	EGA	C1	4-c	
B2	2. HE	1. HE		B2	3-c	5.a (Aurreratua)
B1	1. HE			B1	2-c	3.a (Tartekoa)
A2				A2	1-c	2.a (Oinarrizkoa)
A1				A1	1-b erdian	

* HEOeko tituluen baliokidetzak 2007-2008 ikasturteko ikasketa planaren osteko tituluei dagozkie.

Azterketa ofizialak:

2007-08 ikasturtetik, Euskal Etxean HABEren azterketa ofizialak **egiteko aukera dago** euskara-gaitasun tituluak ateratzeko. 2008ko apiriletik aurrera, titulu horiek Eusko Jaurlaritzaren gainontzeko titulu eta Hizkuntza-Eskakizunen baliokidetak dira. Euskal Etxean matrikulatuta egoteak, ordea, **ez du esan nahi** ikaslea zuzenean azterketa ofizialera aurkez daitekeenik; HABEk Euskal Etxeei ikasle hori azterketa gainditzeko gai dela ziurtatzeko exijitzen die.

HABEk ez-ohiko deialdia egiten du euskal etxeentzat, eta bertara aurkezten diren ikasleek azterketa ofizial **bakarra** egin dezakete ikasturtean. Azterketa udaberrian egiten da Euskal Etxean, eta, gainera, tasa bat ordaindu behar izaten zaio HABEri. Hala ere, ikasleak titulua lortzeko premia handia badu, EAEko udazkeneko deialdi irekiko azterketara aurkez daiteke.

Ikastaro arruntak:

Astean 4 ordu egiten ditugu urritik ekainera; alegia, 130/128 eskola-ordu guztira (ordutegiak taldearen beharren arabera molda daitezke). Zazpi ordutegi hauek eskaintzen ditugu:

egunak	ordutegiak	Hasiera eta bukaera
astelehen eta asteazken	10:00-12:00 17:30-19:30 19:30-21:30	Lehen eguna: 2019/10/07 Azken eguna: 2020/06/17
Astearte eta ostegun	10:00-12:00 17:30-19:30 19:30-21:30	Lehen eguna: 2019/10/08 Azken eguna: 2020/06/11
larunbat	10:00-14:00	Lehen eguna: 2019/10/05 Azken eguna: 2020/06/20

Euskal Etxeak maila guztiak ordutegi guztietan eskaintzen ditu; beraz, nahiago duzun ordutegian matrikulatu behar duzu. Taldea sortzeko, gutxienez 8 lagunek egin behar dute matrikula maila eta ordutegi berean. Matrikula-aldia bukatutakoan, zein talde sortu den edo sor daitekeen begiratuko dugu, eta hurrengo bi edo hiru egunetan talderik gabe geratu diren lagunekin telefono edo e-posta bidez harremanetan jarriko gara ordutegi aldaketa eskaintzeko. Adibidez: 17:30etan 3 lagun eta 19:30etan 5 lagun badaude, ikasleak elkartuz talde bat sortzen saiatuko gara. Matrikulazio epeen barruan matrikulatzen ez bazara, taldeak sortzeko aukera gutxiago egongo dira; **bi aukera jartzen badituzu, taldeak errazago sortuko ditugu (1. eta 2.; lehenengoa ateratzen ez bada, edozein aldaketa egin aurretik beti deitzen dugu telefonoz)**. Sortutako taldeetan integratu ezin bazara, matrikula tasa itzuliko dizugu; eta zure maila zein den ez badakizu, proba bat egingo dizugu.

Autoikaskuntza Internetez (Boga):

Zer da Boga?

BOGA urritik ekainera eskaintzen dugun Internet bidezko ikastaroa da. Etxean egiten da lan, eta ikasle bakoitzak tutore bat izaten du zalantzak argitzeko, etab. Gainera, tutore horrek ikaslearen garapena gertu-gertutik jarraitzen du, eta ikasle bakoitzaren beharrei erantzuten die: huts egiten duen edukietan ariketa gehiago bidaltzen dizkio.... Honez gain, hilean behin eta Euskal Etxean bertan, Bogako ikasleak talde txikitan elkartzen dira tutorearen agindupean bi orduko mintzamen-saioa egiteko. Ikasturteko edozein unetan matrikula daiteke, betiere ikasle berria dagoeneko osatuta dagoen mintza-talderen batean sar badaiteke. Zerotik hasten diren ikasleak bakarrik irailean matrikula daitezke.

Nola dabil?

Gaur egun, BOGA Moodle plataforman integratuta dago. Euskara Internet bidez ikasteko sistema multimedia bat da. Erabili ahal izateko, pasahitz bat izan behar duzu (euskaltegi batean matrikulatzen zarenean eskuratuko duzu) eta Interneterako konexioa. BOGAK euskalduntze prozesu osoa hartzen du, eta lau ikastarotan zatitua dago. Ikastaro bakoitza 15 unitatetan banatzen da, eta horietako bakoitza 10 saiotan. Saioak ariketez osatuta daude, bataz beste 30 ariketa saio bakoitzeko, eta horiek eginaz egingo duzu aurrera. Ariketen nolakoari dagokionez ere, zabala da sistemak eskaintzen dizun ariketen nolakoa: hutsuneak bete, azpimarratu/aukeratu, egia/gezurra, ordenatu, bikoteak osatu... Saioko ariketa guztiak egiten dituzunean sistemak testa egingo ditu; gainditzen baduzu, aurrera eta bestela, erreparoko saioa sortuko ditu. BOGAK aurreikusitako saio guztiez gain, eta zure ibilbidearen arabera sor ditzakeenez gain, irakasleak ere aukera du, hala iritziz gero, zure neurriko saioak sortzeko. Beraz, unitate bakoitzak dituen 10 saioak egin beharreko gutxieneko lana da; hortik gora zure lanak aginduko baitu (astean 4-5 ordu egitea gomendatzen da). Ariketen zuzenketa bat-batekoa da, baldin eta erantzun irekia eskatzen dutenak ez badira (laburpenak, balorazioak...), izan ere, azken hauek tutoreari igortzen zaizkio Internet bidez. Boga nola dabilen probatzeko, demo batzuk aurki ditzakezue honako esteka honetan: [Demoak \(ikasten-HABE\)](#)

Zer sartzen da Bartzelonako Euskal Etxeko matrikulan?

- Boga programara sartzea, urritik ekainera (bakoitzak nahi/ahal duena egin dezake: ikastaro erdia, ikastaro bat, ikastaro bat eta laurden...).
- Tutorea, urritik ekainera (zalantzak argitzeko, idazlanak zuzentzeko...)
- Hilean 2 orduko mintza-saioa talde txikitan

Beste ekimen batzuk:

Haurren txokoa eta Haurren Tailerra:


Urritik ekainera. Etxeko txikienei zuzendua beste ume batzuekin euskara erabili eta jolas dezaten... Bartzelonan! (euskara ulertzen duten 3 urtetik gorako umeentzat). Eskatu informazio gehiago.

Mintzalaguna:

Proiektu hau euskara ikasleek euskaldun zahar batekin praktikatzeko aukera izan dezaten sortu zen. Euskaraz hitz egiteko saio kopuru zehatz baterako konpromisoa hartzen duten lagunekin bikote linguistikoak egiten ditugu. Horrela, ikasleek jarioasunean hobetu eta hitz egiteko ahalmenean aurrerapausoak egiten dituzte, eta euskal hiztunek Bartzelonan euskaraz hitz egiteko aukera izaten dute. Inoiz honako aldaera hau ere egin izan da: euskara-català trukea. Hamahirugarren ekitaldia izango da 2017-2018 ikasturtekoa.

Berba-taldea:

Euskal hiztun edota euskaldun zaharrek Bartzelonan euskaraz hitz egin edo berba egiteko aukera edukitzeko asmoarekin sortzen ditugu talde hauek: dakiten euskara ez galtzeko, euskaraz hitz egiteko jario edo erraztasuna mantentzeko...



Matrikulatzeko epea:

Irailaren 2tik 20ra

Urtarrilaren 8tik 24ra ere matrikulatzeko aukera izango duzu; beti ere, taldeetan lekua badago eta taldeak duen euskara-maila badaukazu.

Prezioak:

Euskal Etxeko bazkide: 352 € | Ikasturte osoa. Ikastaro arruntek eta on line ikastaroek (Boga) prezio
Ez bazkide: 502 € | bera.

Matrikulatzean bazkide egiten bazara eta ikastaroa amaitu aurretik bazkidetzatik baja ematen baduzu, matrikularen aldea ordaindu egin beharko duzu.

Ordainketa:

Matrikula ordaintzeko hiru aukera daude:

	Ikasleak ordaindu		Euskal Etxeak bankutik kobratuko du			Guztira
A aukera:	352/502 € matrikula tasa		urria	azaroa	abendua	= 352/502 €
B aukera:	100 €	+	252/502 €			= 352/502 €
C aukera:	100 €	+	84/134 €	+	84/134 € + 84/134 €	= 352/502 €

Matrikula-orria ematerakoan, matrikula osoa ordaindu beharko duzu; edo 100€ko matrikula-tasa, epeka ordainduz gero. Tasaz gainerakoa guk hartuko dizugu banku-helbideratzearen bidez.

Matrikula osoa ordaindu aurretik baja hartuz gero, ez dugu ordura arte ordaindutakoa itzultzen.

Nola matrikulatu:

Euskal Etxean bertan:

1. Idazkaritza-ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:00-20:00 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 93 310 22 00
2. Informazio-orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula-orria bete (daturen bat falta bada, matrikulazio epearen azken eguna baino lehen eman beharra dago. Ikastaroa epeka ordaindu nahi baduzu, ez ahaztu zure bankuko datuak jartzea. Bazkidea bazara eta kontu beretik ordaindu nahi baduzu, bankuko datuetan jarri "bazkide" eta kito). BOGAko ikaslea bazara, mintza-saioen orria ere bete.
4. Matrikula tasa edota ikasturte osoa ordaindu.

Internetez:

1. euskarabcn@euskaletxeak.org e-postara mezu bat idatzi matrikulatu nahi duzula esanez. Informazio orria eta matrikula-orria jasoko dituzu e-mail baten bidez.
2. Informazio-orri osoa ondo irakurri.
3. Matrikula-orria zure ordenagailura jaitsi eta bete (daturen bat falta bada, matrikulazio epearen azken eguna baino lehen eman beharra dago. Ikastaroa epeka ordaindu nahi baduzu, ez ahaztu zure bankuko datuak jartzea. Bazkidea bazara eta kontu beretik ordaindu nahi baduzu, bankuko datuetan jarri "bazkide" eta kito). BOGAko ikaslea bazara, mintza-saioen orria ere bete.
4. Matrikula-tasa edota ikasturte osoa ordaindu La Caixako Euskal Etxearen kontu honetan: ES56 2100 1089 70 0200039109. Kontzeptuan "euskara + izen -abizenak" jarri nork ordaindu duen jakin dezagun. Agian, diru-sarreraren egiaztagiriaren kopia eskatu beharko dizugu; beraz, gorde ezazu ondo (**guk EZIN dugu tasa zure kontutik hartu**).
5. Matrikula-orri bete e-postaz bidaliezaguzu, eta e-posta berean ordainketaren data esaguzu; horrela, gure administrariak ea akatsik egon den konprobatuko du.
6. Epeka ordaindu nahi baduzu, matrikula-orria inprimatu behar duzu den-dena beteta, eta eskolako lehen egunean **sinatuta** ekarri beharko duzu.